

Durangoko Udal Euskaltegiak, martxoaren 3rako Klima Aldaketaren inguruko sentsibilizazio jardunaldia antolatuko du.

Jardunaldi honen helburua, klima aldaketarekin erlazioa duten arazoaren aurrean, euskaltegiko irakasle zein ikasleak sentsibilizatzea da.

2009.urtean zehar, Euskaltegian ezarri eta ziurtatu den Ekoscan arauaren arabera ingurumen kudeaketarako sistemaren testuinguruan sortu da ekimena.

Sistema honen ezarpenaren lehen momentutik, ingurumen alorraren hobekuntza helburu duen edozein ekimen martxan jartzekotan, irakasle zein ikasleek parte hartzea ezinbestekoa dela argi geratu zen. Hori dela eta, ingurumenaren hobekuntzarako planeko helburuetako bat, sisteman parte hartzen duten eragile guztien sentsibilizazioa lortzea da.

Jardunaldi honen helburu nagusietakoa, parte hartzaileei klima aldaketaren zergatiak eta ondorioak ezagutaraztea eta ondorioak gelditu eta gutxitzeko egiten ari diren ekintzen inguruko informazioa jakinaraztea da. Zentzu honetan, gaur egun maila globalean, zein tokiko mailan martxan jarri diren ekintza nagusien aurkezpena egingo da.

Aitor Larrucea, Durangoko Udaleko Tokiko Agenda 21eko arduradun teknikoak, 2009ko apirilean argitaratu zen Klima Aldaketaren Aurkako Udal Ordenantza eta bertatik ondorioztatzen den klima aldaketaren aurkako udal programa aurkeztuko ditu goizean.

Arratsaldeko saioan, Ismene Mandaluniz, Durangaldeko Mankomunitateko Tokiko Agenda 21eko teknikariak Mankomunitatetik gauzatzen ari diren ekintza nagusien azalpena egingo du.

Jarraian, Minuartia Enea taldeak dinamizatuko duen jardunaldiaren programa azaltzen da.

Goizez 9:30-11:00

EGINKIZUNA

- Ongietorria eta aurkezpena

Klima aldaketari buruzko oinarrizko aurkezpena; zergati nagusiak eta kontuan hartzen ari diren jardueren irtenbidea

- Klima Aldaketari buruzko udal-ordenantzaren aurkezpena

- Karbono aztarna kalkulatzeko ariketa egin eta gauzak nola alda ditzakegun aurkeztu

Arratsaldez 17:30-19:00

EGINKIZUNA

- Ongietorria eta aurkezpena

▪ Klima aldaketari buruzko oinarrizko aurkezpena; zergati nagusiak eta kontuan hartzen ari diren jardueren irtenbidea

- Eskualdean ingurumen arloan indarrean dauden plan nagusien aurkezpena:

- Mugikortasun plana
- Airearen kalitatearen plana
- Eskolako Agenda 21a

- Karbono aztarna kalkulatzeko ariketa egin eta gauzak nola alda ditzakegun aurkeztu